

## Gobernu Onaren, Herritarrentzako Arretaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendari Nagusia

**Josu Xabier Llano Hernaiz**

Barakaldon jaio zen, 1964an

### Prestakuntza akademikoa:

Medikuntzan lizentziatua (UPV-EHU), Osasun Erakunde eta Zerbitzuen Zuzendaritzako graduondokoa (UOC), "Osasun Kudeaketako Prestakuntza" programa (Osakidetza), IKTak Praktika Klinikoan Aplikatzeko graduondokoa (UOC), Simulazio birtualaren inguruneke osasun-kudeatzaileentzako zuzendaritza-gaikuntzako programa (ExperiON-SEDISA), Kultura Zientifikoko masterra (UPV/EHU - UPNA), Kudeaketa Aurreratuko Eredua (EUSKALIT)

### Lan-esperientzia:

*Nire esperientzia profesionala Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Mendi Zerbitzuan hasi zen, eta 1990etik 2001era lan egin nuen bertan.*

*Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailean 2001ean hasi nintzen lanean eta 2004ra arte jardun, Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzan, osasun-sistema publikoa kudeatzeko zeregin teknikoetan.*

*2004-2006 aldian, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundean ibili nintzen lanean, eta 2006-2010 urteetan Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzara eta Osasun Planaren Zuzendariordeztzara itzuli nintzen. Plan eta programa estrategikoak egiteko koordinazio- eta partaidetza-lanak egin nituen, bai eta Osasun Sistema Nazionalaren eta 2002-2010 Euskadiko Osasun Planaren estrategien batzorde instituzionaletan Sailaren ordezkari teknikoan jardun ere.*

*2010eko martxoan, Osatek SA sozietate publikoan sartu nintzen, eta "Osasun Zerbitzu Multikanalen Zentroa - OSAREAN" eta BETION telelaguntza-zerbitzu publikoa definitzen, kontratatzen, garatzen eta hedatzen parte hartu nuen, bai eta pazienteen telemonitorizazioko eta arreta ez-presentzialeko programetan ere. Aldi horretan, IKTekin, osasunarekin, kronikotasunarekin, arreta ez-presentzialarekin eta zahartze aktiboarekin lotutako Europako proiektuetan parte hartzeko aukera ere izan nuen, Europako Batzordearen lan-sareetan; ekitaldietan, sistema sanitario eta soziosanitario publikoaren ordezkari ere aritu nintzen.*

*Azkenik, 2015eko abendutik gaur arte Osatek SA sozietate publikoko zuzendari kudeatzaile izan naiz.*

### Hizkuntzak:

Euskara: Maila altua

Titulazioa: 3.HE. (C1)

Ingelesa: Maila altua

Titulazioa: Advanced Certificate in English (C1)

Frantsesa: Oinarrizko maila